



Amedo eta Dominguez akusatuen aulkian

Amedo eta Dominguez GALEkoak zirela ziurtatu zion Balsategik lagun bati

Akusatuak ezagutu zituen Maria Jesus Garcia Urbinak deklaratu zuen atzo

Amedo eta Dominguez poliziak GAL taldekoak zirela «ziurtasunez» esan ziola Maria Angeles Balsategik deklaratu zuen atzo Maria Jesus Garcia Urbinak, azken honen lagunak. Akusatuak ezagutu zituen honek lekuko bezala deklaratu zuen atzo Auztiegi Nazionalan.

MADRIL

Maria Jesus Garcia Urbina, Maria Angeles Balsategiren lagunak Jose Amedo eta Michel Dominguez polizien kontrako epaiketan deklaratu zuen atzo lekuko bezala. Amedo eta Dominguez GAL taldekoak zirela esan ziola bere lagunak deklaratu zuen Garcia Urbinak, eta bi akusatuak ezagutzeko aukera izan zuela, Balsategi berak aurkeztu egin zizkiolako.

Maria Angeles Balsategi Michel Dominguezen laguna izana da eta Amedo ere ezagutu zuen. Epaiketa horretan lekuko da eta Auzitegi Nazionalan egin beharreko deklarazioak atzeratu egin zituzten uztailaren 2a arte. Balsategik GAL taldeekin lotu izan ditu Amedo eta Dominguez eta datu ugari eskaini ditu, GALEk atentatuak burutu zituen garaian bi poliziek egiten zutenaz.

Amedo eta Dominguez poliziak eta Balsategirekin batera okasio batean baino gehiago irten zela deklaratu zuen atzo Maria Jesus Garcia



Maria Angeles Balsategiren deklarazioa uztailaren 2ra atzeratu zen.

EFE

Urbinak. Bi poliziak GALEkoak zirela «ziurtasunez esan ziola» Balsategi bere lagunak azpimarratu zuen epaiketan lekukoak, herri akusazioak galderei erantzunez.

«Bi polizia horiengandik urrun zedila esan zion nik arazoetan ez sartzeko, baina ez zidan jaramonik egin horietako batengatik sentitzen zuenagatik» adierazi zuen.

Bestalde, 1988ko urriaren 30ean Barne Ministeritzan goardia egiten zegoen poliziak deklaratu zuen. Egun horretan Amedo eta Domin-

guezen alde deklaratu zezan Maria Angeles Balsategi presionatu eta gero Barne sailera zuzendu izana leporatu zaio Francisco Paesari, GAL auzian auziperatutakoari. Aipatutako poliziak, hala ere, ukatu egin zuen egun horretan Paesaren kotxea minsteritzara heltzen ikusi zuenik. Andorrako armeriako arduradunek ez zirela Auzitegi Nazionalan deklarazioa ematen egongo jakin erazi dute, epai gelako idazkariak esan duenez. Ustez armeria horretan erosi zituzten armak GALEko kideek.

Arabako Diputaziorako akordioa «ia itxita» dagoela dio Ansolak

GASTEIZ

Arabako Diputaziorako akordioa «ia itxita» dagoela esan du Alberto Ansolak jeltzaleak. Alberto Ansola iharduneango Hazienda diputatu eta diputatu nagusiaren ordeko da eta eta EAJ eta PSOEek babestutako diputatu nagusigaia.

Gobernu kontseiluen osteko ohizko prentsaurrekoan programan akordioa lortu ondoren, «Departamenduen egituraketa» zehazteke dago, Alberto Ansolaren esanetan, baina «arazo handirik» izango denik ez duela uste gaineratu zuen.

Ansolak ezagutzera eman zuenez, Euzko Alderdi Jeltzaleak Diputazioko funtzioak banatzeko sei proposamen bidali dizkio PSE-PSOEri. Horietako batzuetan, Hirigintza, Lehendakaritza, eta Ekonomia desagertzea planteatzen zen, baina ez denak bate-

Arabako Diputaziorako eta Gasteizko Udalako akordioaren arteko loturaz galdetuta, «Diputazioko paktua ez dago Gasteizko Udalekoaren menpe, baina posiblea da PSOEek lotu nahi izatea eta horrela balitz jarrera logikoa iruditzen zait», erantzun zuen.

Ansolak onartu duenez, gai baten inguruan ez dira leundu bi alderdien arteko diferentziak, Ba-



Alberto Ansola.

tzar Nagusietako hauteskunde legearen erreforma, alegia. EAJk ordezkaritza handiagoa nahi du Arabako koadrilentzat, Gasteizen kaltetan, herrialdearen «zentralizazioa» ekidin asmoz.

Arabako Batzar Nagusiek bihar egingo dute lehen osoko bilkura, batzarkideen inkompatibilitateak aztertzeke asmoz. Atzo bildu ziren Mahaia eta Bozera-male Batzordeari entzun ondoren, Batzar Nagusietako lehendakariak diputatu nagusia aukeratzeko bilkuraren data erabakiko du. Osoko bilkura hori uztailaren 1tik 22ra bitartean egin ahal izango da.

EAJ-PSOE paktuak ez du Gasteizen homogenitaterik izango Earen ustez

GASTEIZ

Gasteizko Udalako EAJk eta PSOEek egin nahi duten akordioak ez du beharrezkoa den homogenitaterik izango, Mikel Mintegi EAKo zinegotzi bakarrak atzo adierazi zuenez. Mintegiren esanetan, jeltzale eta sozialisten hitzarmenak Gasteizko Udalean «egoera larria» sortarazi dezake, «alderdi hauek ez bait dute programarik».

Hauteskundeak egin zirenetik, EAJ eta PSE-PSOE karterak nola banatu hitzegiten ari direla ziurtatu zuen Mintegik, eta programa alde batera utzi dutela salatu zuen.

Horregatik, Mikel Mintegiren

esanetan, Gasteizko Udalean «bi gobernu paralelo eta beraien artean elkar ulertzeko gaitasunik gabekoak» egongo dira. Herritarren beharrei eta eskakizunei bizkarra emango dietela erantsi du EAKo zinegotzi gasteiztarak.

Egoera honek ekar dezakeen ondorio txar guztiei aurre egiteko EAK bere esku dagoen «guztia» egingo duela ziurtatu zuen, eta hauteskunde kanpainan iragarritako egitasmoak defendituko dituela. Herenegun bertan, Javier Rojo, PSE-PSOEren aldetik EAJrekin negoziaketan ardura duen zinegotziak bi alderdien arteko elkarriketetan aurrerapenik ez dela eman salatu zuen.

Mikel Castilloren sumarioan agertu da Estatuaren abokatua

IRUNEA

Espainiak, abokatu baten bitartez, idatzi bat aurkeztu du Mikel Castilloren hilketa dela eta zabalduko 2/91 sumarioan. Iruñeko Instrukzioko 2. Epaitegira bidalitako idatzien bidez, Estatuak sumarioan hartu du parte, aurretik Beatriz Goded epaileak agindu bezala.

Mikel Castillo gaztearen hilketatik Rafael Navarro polizia prozesatu dute eta bera deklaratu dute arduradun pertsonala eta zibila. Funtzionaria izatean, ordea, Estatuak ere

erantzukizun zibila eta subsidiarioa duela erabaki zuen epaileak.

Estatuaren abokatuari horren berri eman zitzaion eta orain sumarioan agertu da, epaileak Estatuaren solbentzia deklaratu duelarik.

Mikel Castillo iruinxemea 1990eko irailaren 18an hil zuen Rafael Navarro poliziak Iruñeko Carmen kaleak. Polizia prozesatuak duela gutxi egin du deklarazioa, Cordobako bere etxean eta akusazio partikularrek Justiziaren «aldeko tratua» salatu du hori ahalegindu duelako.

Irurtzun-Andoain autobidea

Lurraldeak Arartekoaren dimisioa eskatu du autobidearen gatazkaz esandakoagatik

DONOSTIA

Lurraldeak Juan San Martin Arartekoaren dimisioa eskatu du autobidearen gatazkari buruz egindako adierazpenengatik. «Leitzarango autobidearen arazoa zera da: sektore politiko zehatz batentzat dena txarra dela eta beste batentzat, berriz, dena ona. Ez bata eta ez bestea. Ez da autobide zehatz batekin jokatzeko baizik eta politika zehatz batzuekin. Ez dago konponbiderik», adierazi du Juan San Martinek, Deiak atzoko edizioan jasotzen zuenez. «Arartekoa politikoki alde bat aukeratzen baldin badu eta gatazka sozialak 'txar eta onen' arteko enfrontamendu bihurtzen baldin baditu, Arartekoak dimititu behar du. Bere inpartzialtasun teorikoa susmagarri bihurtzen delako eta bere legimititatea kolokan gelditzen delako», adierazi du Lurraldeak atzo zabalduko prentsa agiri baten bidez.

San Martinek eta Soziologia Juridikoaren Institutuko partaide batzuek Peter Dienel irakaslearekin izandako bileraren kontestuan ulertu behar dira Arartekoaren adierazpenak. Donostian izan da Peter Dienel gatazka sozialak lehertu aurretik konpontzeko sistema bat azaltzen. Wuppertal-eko Unibertsitateko irakasle honek gatazka sozialak konpontzeko ereduaz azaldu dio San Martini eta Leitzarango autobidearen kasua berak proposatzen duen mekanismoaren bidez konpon zitekeela esan du. Dienelen ereduak herritarrek osatutako «gune esku hartzaileak» proposatzen ditu eta arrakastaz esperimendatu da Alemanian.

AUTOBIDEAREKIN POSIBLEA APLIKATZEA

Unibertsitatean, irakasle asoziatuen eta errektoretzaren arteko gatazta agian konpon zatekeen gaur egungo momentura heldu aurretik. Elkarriketa

lortzen saiatu behar da, bata bestea garaitzen duelako etor daitekeela irtenbidea pentsatzera heldu aurretik», adierazi du Peter Dienel irakasleak, Deiak atzo jasotzen zuenez. Ea Nafarroa eta Gipuzkoa arteko autobidearekin sistema erabili ahal izango den galdetu diote. «Autobidearekin eredu aplikatzea posiblea izango zela ziur naiz», erantzun du Peter Diennelek.

Lurraldeak Dienel irakaslearen adierazpenen sakontasuna azpimarratu du eta Juan San Martin Arartekoaren hitzekin alderatu du. «Bost lerrotan San Martinek erakusten du ez duela ganorarik Leitzarango autobidearen gatazka ukitzean, jarrera aldekoia agertzen duela, eta, gainera, gatazka honek 'konponbiderik' ez duela esatera ausartzen da», dio Lurraldeak. «Arartekoa —jarrailu du Lurraldeak— herritarren arazoei irtenbideak emateko gauza ez bada dimititu behar du».